

# Gaitzespenaren psikosia

• JOXE AZURMENDI •

(FILOSOFIA)

**E**gin behar duela, uste duenak, egitea dauka. Baina besteri exijitu? Zein artikulua edo paragrafoen izenean exijitzen ote da hemen beti, atentatu baten ondoren, Alderdi guztien eta hiritar guztiguztien gaitzespen publiko garraisizko hau? Artikulu hori inon ez dago legean. Non dago orduan? Inon ez. Zerk legitimatzen du Gobernu edo Alderdi bat, legeak exijitzen ez duen ezer inori exijitzeko? Ezerk ez. Nola eta behintzat zuzenbideko Estatuaren den eliza bat bihurtu eta Alderdi batzuk Misioetako Kongregazioak. Pluralismoa, inondik ere, igandean asko goratu eta puztutzeko dago, astegunetan praktikatzeko dispendentsatuta egoteko.

Eta zer gaitzespen da, exijitzen dena? Hori ere hobeto dago, konfuso utzita. Askatu eta gutxi argitu. Izan ere, nahi dena gaitzespen juridikoa-edo baldin bada (printzipioz arlo hori baitagokie politikoei), Estatuak badauzka horretarako bere organoak, batere mizkinak izaten ez direnak gaitzesteko orduan. Alderdiak eta Parlamentuak ez dira horretarako. Politiko nahi bada gaitzespena, Parlamentuek eta Alderdiek ederki egin lezakete hori: hori egin, politikoki egin, deklarazioekin baino hobeto, bortxazkoak baino beste medio efikazagoak badaudela praktikan erakutsiz egiten da. Alderdiak eta Gobernuak horretarako daude, egon. Bestelako bide hobeak badaudenean, baitago gaizki biolentzia. Ez prediku hobeak daudenean. Gaitzespen egiazko politikoa hori izango litzateke. Eta sentitzeakoa da, hori ez gehiago egotea. Bestea, izango da politikoei egina (hitzegina bakarrik!), ez da politikoa, bai erretoriko hutsa. Baina, ez, hori ere ez: kontua da, gaitzespena morala izaten dela, hemen exijitzen dena.

Zein moraletakoa, ordea? Katolikoa? Budista? Marxista? Liberal utilitarista? Ez baitago moralik, eta bai moralak, eta beharbada nire moralak hain zuzen ez kondentatzea eskatzen du. Ez ote da beste edozein moral bezain morala eta zilegizkoa? Savaterrek berak guztiz bidezkozat jotzen du posibilitate moral hori. Aspaldi ez duela, Setien Jauna eta Savater Jauna, orduetako solas luzean, ez ziren iritsi ados jartzera, ETA moraliki gaitzesterik ba ote dagoen ala ez. Setienek eta Savaterrek eztabaida luzean erabaki ezin dutena, eztabaida handi beharrik gabe daukate antza politikeroek erabakita, etikako lezorik ez emateko eta ez exijitzeko ezerk legitimatuak daudenean (beren harrokeria propioak ez bada):

“

*Zein moralen izenean exijitzen dute gaitzespena? Badaezpada, morala esaten da beti, zein esan gabe. Horrela bat seguru gelditzen da*

Zer ote da, baina, morala deitzen duten hori? Hasteko, zaila egiten da, egunotan Alderdi batek moral bat eduki ahal duenik ere pentsatzea. Zailagoa, edukita ere, PPak eta PSOEak edo IU/EBak berdina edukitzea... Moral bat, pentsamendu bat bezala, inork ez edukiz bakarrik eduki liteke denek berdina. Baina Alderdiek, programa politiko bat daukaten bezala, ez daukate programa moral bat. Zein moralen izenean exijitzen dute gaitzespena? Badaezpada, morala esaten da beti, zein esan gabe. Horrela bat seguru gelditzen da. Ala politiko batzuek enteratu gabe daude, ja ez dela Francoren garaian bezala, eta bat baino gehiago daudela? Oso posible baita, hemengo politiko batzuen mailarekin.

Bestalde, zein autoritate moral dauka Alderdi politiko batek, Gobernu batek, hain zuzen exijentzia moralekin inor txantaiatu gura izateko? Ez al da hori bere izaera politiko korruptutza? Bai, politika usteltzea da, integrista erlijioso bihurtzea da. Eta

horregatik da kezagarria gertatzen ari dena. Gogorra da, behiala ezkerrekoa zen Alderdi bateko politikoa, gaur joko fundamentalista horietan bero-bero ikustea. Nocedal baino integristago.

Gizarteko moral eta erlijioen pluralismoan, Estatu neutrala da. (Estatu demokratikoa, noski! Estatu ez konfesionala). Neutrala izateak esan nahi du, berak ez duela erlijiosoki edo moraliki juzgatu. Estatuaren arrazoi politikoaren mailan mugitzen da, hein honetan inerlijiosoa eta inmorala da esentzialki, ezin duelako eta ez duelako nahi moral ezberdinen artean juez izan, ezta moralik itxuragabeenarekin ere. Alderdiak ez dira konfesioak eta, azken denboran, ez dira konfesionalak ere. Hau da, Alderdi konfesional erlijiosorik jada ez dugu nahi. Baina—hori da komeria—moraliki konfesionalak nahi genituzke nonbait! Geu ez ezik, besteak ere konfesionalak izatera behartu. Hala, Alderdi batzuek beste batzuk —judu eta marrano, halakoak!—, egin nahi ez duten konfesioa, publikoki egitera bortxatu gura litzukete!... Gaurko suak ez dira hain suzkoak izango, baina zer alde dago funtsean Inkisizioaren printzipiozko postuarekin? Kontzientzia inperioso bat su eta fu, kontzientzia minoritario baten heratsaile, Ongiaren izenean.

Aspaldiko historia espainola da, egia esateko. Lehenago fede zuzenaren exijentzia zen, orain moral zuzenarena. Eta begira, zer komedia bitxia ateratzen zaigun: nire exijentzia politiko da zure obligazio morala. Logikoki, zuk moraliki zer pentsatu, nire eskubide politikoak da. Biba Filipe III! Gertatzen dena da, bitartean Espainia ere Modernitatean jausita dabilela (iritsita baino gehiago), eta espainol-

keriak ere ja ez duela behar bezala funtzionatzen, firme eta uniforme, hots, katoliko. Pluralismoa, nahi ezta ere, inposatu egiten da errealitatean. ETAREN azkeneko atentatua dela-ta, nabarmenkeria ezin nabarmenagotan ibili zaizkigu moral zuzenaren maisuak. Aurrena EH behartu behar zen derrigor kondena adieraztera. EHren adierazpena EAri ez zaio aski irudituko gero. EArena bera eta EAJrena ez zaie aski irudituko PP eta PSOEri.

“

*Esaten da, ideia denak libre omen daudela demokrazian. Ingalaterran edo, agian hala izanen da. Baina hemen ez dago libre isiltzea ere*

Eusko Jaurilaritzen kondena ez zaio aski irudituko Nafarroako Gobernuari. Elkarte Autonomoko protestak ez dira izan aski Madril. Armadako Apezpiku Estepa jaunak ez du jakin atentatua aski kondentatzen, aski kondentatzen ez omen zuten Setien kondena gabe, etc. Hitz batean: kondena ere, edonolako ez da nahikoa. Behar dena, kondena moral politikoa baita. Uler-

ten? («Kontudenteagoa» eskatzen zuten EAko Erraztik). Alegia, kondena morala bai, baina efektu politikoak izango dituen. Alegia, politikak exijitzen duen modu eta neurriko kondena instrumentaltzat behar du (garai ilustratu hauetan, morala). Baina Machiavelli gaiztoa zen, egia esaten zuen-eta. Hemen denok on-onak gara, tolerantak, pluralistak, demokratikak. Eta horregatik moral bakarria, kondena absolutu bakarria eta manifestaldi egiazko bakarria bakarrik («un millón en la Plaza de Oriente» berriro) onartuko dugu.

Esaten da, ideia denak libre omen daudela demokrazian. Ingalaterran edo, agian hala izanen da. Baina, edo hau ez da Ingalaterra, edo hau ez da demokrazia, edo biak. Hemen ez dago libre isiltzea ere.

## ..hemeroteka

### ARGIA

*Nora goaz honela?*

[BALEREN BAKAIKOA]

Ustekabeen harrapatu gintuen, nahiz ETAtik datorren edozein berri modu honetakoa edo antzekoa izan. (...)

ETAren erabaki honen ondorio larrienetako bat Lizarra-Garazi auzitan jartzea izan da, nahiz formalki bizirauteen jarraituko duen. (...) Zer egin, bada, egoera geldo honetatik irtetzeko? Lehenbailehen ETAK berriro su-etena aldarrika dezan lortu behar litzateke. Horretarako, Lizarra-Gara-

ziko indar guztiek burua beren lekuan mantendu behar dute, hotz, eta EHrekin eztabaidatu, erakunde honek behartu baitezake ETA aurreko egoerara itzultzea. Beraz, EB-IURI eta Batzarrerri eskatu behar zaie lehenengo krisialdia etorri bezain azkar ezin dezaketela ontzitik jauzi egin.



Horrelakoa izango al da 14en Europa? Hai-der Hitler!